

subuoik.Badirut subuoik, saltatus, bat eraat berritzen dela eta suerie obia iruizeko prestatzen dela.

SANFERMIÑETAKO IRUÑA ,SANJUANETAKO ARBIZU

Arbizuko festak,Euskalerriko beste erri askotakuek bezala sanjuanetan izeten dia.Festak astiaat ireunten dubie beya egunik polittenak lenengo biyek dia.Nik gaurkuootan sanjuen bezperako oittura konfatu biizubiet.

Eguerdiko amabieten aguazilek botatzen du kuetia Ayuntamentubuan atzekaldeti beya ezta iyoore faten.Festa aatsaldeko zazpitzen asten da sanjuengo ermiten,erriti berreun bat metrua dauna ordubuorta han juntetzen dia kuadrilla guziek,bakutza beei bluseki eta geñaako gende guziek e bei.

Batzuk bezpeetaa sartzen dia eta bestiek attaayen gelditzen dia . Bezperotan erriko korubuek kantatzen du.

Gioo,ermitta aurrekaldien "erriyek"(udalak)gazta,ogiya eta ardua partitzen ttu denendako.

Beya ez pentsatu arduaplastikosko basotan ematen dela,ez,ez ardua barkillotan partitzen da.

Barkilluok zillerrezko ontzi batzuk diya ,txapalak eta bazterretan bi girten dazkiyee.Amazazpigaan mendekuek dia eta izugarri pollitek dia.Guai sei bakarrik gelditzen dia,aleman batzuk ostu zittubielako geñaakuek diela amarren bat urte. Ordueskios aguazillek, Ioxé Miguel soldaanekek,ez ttu bisteti galtzen.

Ondorien gendia kuadrilleka juntetzen da, bakunza beei txokuen eta beendubua eitten dubie....Erdiyen kazul bet jartzen dubie,normalien,ajoarrieua(abaajubua) o bestela magrak tomakiaaki.

Hontas aparte,ez da faltatzen tripota(odolkia),hau beita ganuik tipikoona.

Tripoto itxa askotan presatzen dia bezperati.Arbizuko tripotak odolatik kanpua,arroz oosiya,tipula,porrubua,baatzuya gordiñek eta txerriyaan mantekaa-ki etten dia.

Biyertien musika ooten da eta askok dantza franko etten dubie:jotak,porrusakdak..

Hamarrak aldia,txaranga aurrien dela,gende guzia ermitteti errira jeisten da.Ordureko, erriyen(baakizu bie Arbizu karrikaka jakar bat dela)karrikaan erdiyen,itxa bakutzek su bet eitten du eta gende guziek saltatzen ttu

subuoik. Badirui subuoik saltatus, bat eraat berritzen dela eta suerte obia iruitzeko prestatzen dela.

URDIAINGO EUSKARA